

REVISTA 2023

2023 ALDIZKARIA





Euskal Herriko

DOWN

Sindrome

Fundazioa

eta beste adimen urritasunak

Artikuluak

Gure bizi-esperientzia Fundazioan - Esti Martín Beitia, Amaia Araujo Martinen ama.....	5
Berrikuntza EHDSFn - Isabel Fernández Hidalgo, IFH consulting.....	7
NEUROBIZI programa: estimulazio sentsokognitiborako eredu berria. Onurak - Mentxu Alday, Estíbaliz Eguia y Heri Vaquero.....	9
Helburuak gainditzen: Joseba Castresanari elkarrizketa	12
Karmele Fernández Elejalderi elkarrizketa. EHDSFko boluntarioa	14

Albisteak

Urtarrila	18	Uztaila	37
Otsaila	20	Abuztua	39
Martxoa	23	Iraila	41
Apirila	27	Urria	45
Maiatza	29	Azaroa	49
Ekaina	33	Abendua	54



ARTIKULUAK

ARTIKULUAK

ARTIKULUAK

ARTIKULUAK

ARTIKULUAK

ARTIKULUAK

ARTIKULUAK

Gure bizi esperientzia Fundazioan

Irudian ikus dezakezuen bezala lau kidez osatutako familia gara, eta lerro hauetan, guztien ordezkaria izango naiz. Lehenik eta behin, azpimarratuko dut ezin harroago sentitzen naizela nire seme-alabez, beraiei esker ama naizelako, betirako.

Eskerrak eman nahi dizkiot baita ere Euskal Herriko Down Syndrome eta beste adimen urritasunen Fundazioari, soilik alfabetoko 27 hizkirekin hainbeste idazteko aukera eman didalako. Gure esperientzia kontatuko dizuet, baina, ez edonolakoa, baizik eta betirako markatuta uzten zaituen bizi esperientzia. Eskerrak ematea bakarrik ez zait geratzen, eta horixe helarazi nahi dizuet.

Fundazioa geure etxea da. Egun hotz eta euritsu baten ondoren babesa ematen duen etxea. Maitatua eta zaindua sentitzen zaren lekua, horixe da. Hori da hain zuzen ere niretzako eta nire familiarentzako Fundazioa. Beti profesional bezala inguratuta gaude. Gizatasuna gailentzen da haien curriculumaren gainetik, eta ia 10 urtean zehar, imajinatu dezakezue zenbat ezagutu ditudan. Zenbait, gainera, bereziki hurbilekoak ditut.

Gizakiak argi-ilunez osatuak gaude, beti. Nahikoa adimen emozional izan behar da hori ikusi, onartu eta kudeatzen jakiteko. Alaba baten desgaitasuna bat-batean iristean, galduta sentitzen gara. Horrenbestez, ez zaigu ahazten nork laguntzen gaituen benetako une zail horietan. Eskerrik asko Saioa, Fundazioan egin zenigun ongi-etorria 2014ko udaberriko oroitzapenik politena da.



2014an jaio zen nire alaba Amaia, haurdunaldi ohiko baten ondoren, eta bere neba Julen bezala osasuntsu jaioko zela zirudien. Hala ere, genetika apertatsurengatik, Amaia bi gaixotasun arrarorekin jaio zen. Erditzeko gelan bertan jakin genuen. Bizitzen hasi eta ordu gutxiren ostean hiltzear dagoela dirudienean jasotzen duzun eragin emozionala oso gogorra da. Ekidin ezinezkoa zirudiena ehortzetxe batekin kudeatzen hasteko gomendatu ziguten. Lehenengo 48 ordu horiek estutasun eta kezka beteak bizi izan genituen.

Pronostiko guztien aurka eginez, nire alabak bizitzari tinko heldu zion, eta pentsatu nuen: “Zurekin batera, dena lortuko dugu”, eta ordutik aurrera hainbat erronkari aurre egin diegu bizitzan, eta zalantzarik gabe, asko geratzen zaizkigu. Baina indartsu eta ausartak gara, eta bizitza ahalik eta gehien aprobetxatuko dugu, datorrena datorrela. Merezi du bizitza bizitzeak. Eta zalantzarik gabe, Amaiarekin pertsona hobea bihurtu nahiz eta konturatu naiz benetan zer esan nahi duen bizitzak. Zalantzarik gabe, luxua da berarekin partekatzea. Bere azken eguna izan behar zuen lehen egun horretatik gaurdaino, gehitzen ari garen egun bakoitzarengatik zorionsua naiz benetan. Jada ez ditut egunak zenbatzen, Amaiari esker egun bakoitza baita baliotsua.

Gurutzetako Ospitalean 56 egun egon eta gero, Amaia etxera iritsi zen. Orduan, bere ospitaleko eskumuturrekoa moztu nion eta nirea ere bai, ospitaleko alta bi egun eta gero jaso nuen arren, nire gorputza kalean, baina arima ospitale hartako bosgarren solairuan baitzegoen.

Amaiak hiru hilabete zituela joan ginen Fundaziora, eta aurretik master azkar bat egin genuen desgaitasunean, menpekotasunean, gaixotasun arraroetan eta eratorritako patologietan. Aldundiko langileekin, gizarte langilearekin, eta abarrekin hitz egin genuen, eta aste batzuk aurrerago ezezaguna zitzaigun mundu batera murgildu ginen. Horregatik, iluntasun horretan, Saioa izan zen argitu gintuen Fundazioko ordezkaria.

Ordutik aurrera, Amaiak hemen egiten ditu bere terapiak: txikiagoa zenean arreta goiztiarrekoak, eta gaur egun IIK, logopedia eta fisioterapia. Ez dute bakarrik Amaia zaintzen, familia baita ere. Zaintza terapeutikoko programak, prestakuntza saioak eta askotariko jarduerak daude parte hartzeko eta inplikatzeko, alde neurodibergente honetako bizitzak, dudarik gabe, pena merezi baitu.

Fundazioak familiak sostengatzen ditu eta prozesu guztietan laguntzen die, profesionalak beti daude gure ondoan. Harremana oso hurbilekoa da, bai arreta zuzeneko profesionalekin, baita gerentearekin eta patronatuarekin ere eta, hori, zalantzarik gabe, eskertzekoa da. Arreta zentroa aukeratzerakoan ezberdintasunak markatzen dituzten xehetasunak dira. Hemen, etorkizunerako proiektioa dugula sentitzen dugu. Datorrena gehiegi planeatu gabe, kezka asko arintzen dizkigu jakiteak unea iristean profesionalek lagunduko gaituztela, eta zalantzarik gabe, orain arte bezala, Amaiaren zaintzan erabakirik onenak hartuko ditugula.

Fundazioa familia txiki baina handia da, bertako kideak gara eta oso harro nago. Gainera, uste dut horren enbaxadore handiak garela.

Eskerrik asko hainbesterengatik, beti.

Esti Martín Beitia
Amaia Araujo Martínen ama

Berrikuntza EHDSFn

Elkarrizketa Isabel Fernandez Hidalgori, IFH consulting

Urteetan EHDSFrekin lan egin eta gero, ikusi dut erakundea konprometitu egin dela berrikuntza modalitate guztietan eta erakundearen alor guztietan hedatzen, eraldaketa palanka gisa erabiltzen da.

Zergatik da EHDSF erakunde berritzailea?

Berrikuntza ezinbesteko baldintza da EHDSF egungo testuinguruan mantentzeko, gizarteak eta aurrerapenek halaberrez egokitu beharrera eramaten baikaituzte.

EHDSF erakunde berritzailea da, baldintza hauek betetzen baititu:

- a) Bere estrategian intentzioa, birplanteamendua eta sistematika sartzen ditu, eta horiei esker, etengabe berritzen dago.
- b) Pertsonen kulturak berritzeko gaitasuna ematen diote.
- c) Berrikuntzak egitean, bere misio eta ikuspegiarekin lerrokatutako emaitzak lortzen ditu, eta interes talde guztiak pozik daude.

Zer da berrikuntza EHDSFn?

Lantaldeko kide guztiekin egindako bilera batean berrikuntza zer den definitu genuen. "Berrikuntza da aldaketa handiak ezartzea produktuan, zerbitzuan, prozesuan, marketinean edo erakundearen antolamenduan, emaitzak hobetzeko helburuarekin".

Berrikuntza erakundearen DNA n dago. Fundazioak askotariko ekimen eta proiektu berritzaileak gauzatu ditu, besteak beste handitze berrikuntza, edo berrikuntza erradikalagoak.

Gainera, azken urteetan, buruek prestakuntza jaso dute BFAk eta Euskalitek antolatutako Binklusio tailerretan, eta hala sistema hobetu da, eta tresna berriak ezarri dira berrikuntza proiektuak jarraitu eta ebaluatzeko.



Zertarako balio du berrikuntzak Fundazioan?

Egungo “Berrikuntza Planak” tresna hauek ditu, bestek beste: Berrikuntza zorroa, ideien bankua, innotaldeak, Innoéxito, Innofiasco edo innoaprendizaje” proiektuak ebaluatzea, eta abar. Eraldaketarako palanka izaten ari da.

Fundazioaren berrikuntza sistemarekin, errazagoa da misioa betetzea, hau da, desgaitasun intelektuala edo garapeneko dutenen eta beren senideen bizi kalitatea hobetzea, eta egungo beharrei egokitutako kalitatezko laguntza berritzaileak eskaintzea.

Horregatik, EHDSF erakunde eredugarria da, ez bakarrik kudeaketan, baita berrikuntzan ere.



NEUROBIZI programa: estimulazio sentsokognitiborako eredu berria. Onurak.

1990. urtetik desgaitasun intelektualaren (DI) eta/edo garapeneko desgaitasunaren (GD) arloetan esperientzia handia bildu dugu adin txikienetarik helduen etapetatik igaroz eta zahartzarora iritsi arte, eta beti garatu izan ditugu bizi kalitatea hobetzeko esku-hartze programak. Gure kolektiboaren aniztasun handiari erantzuteko, etengabe berritzen ditugu tresnak, metodologia, baliabideak, programak, etab.

Estimulazio sentsoriala eta kognitiboa fundazioan beti oso presente izan dugun hausnarketa estrategikoko elementua izan dira. Esku-hartzeak zeharka hobetzeko moduaren inguruan hausnarketa programatikoa egin eta gero, 2020an (COVIDaren pandemia bete-betean), Fundazioak erabaki zuen apustu berritzaile bati ekitea eta, hala, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, BBK Gizarte Ekintzarekin, Tapia-Dolores Saiz Fundazioarekin, Gondra Barandiaran Fundazioarekin eta Monsma Fundazioarekin lankidetzan gela sentsokognitiboa sortu genuen. Gela sortu genuenetik, profesionalak prestatzeko lan handia egin dugu, eta horren emaitza gisa, 2022ko irailean NEUROBIZI programa martxan jarri genuen.

Programa berritzaile horrek, alde batetik, banakako saioetan estimulazioa lantzen du eta alderdi kognitiboen luzetarako informazioa jasotzen du, eta beste alde batetik, alderdi sentsorialak lantzen dira modu oso eta pertsonalizatuan DI eta GD duten guztientzat, horien adina gorabehera. Estimulazio kognitiboko software bat du funtzio kognitiboak lantzeko eta, horrez gain, gelan hainbat elementu eta material daude estimulazio sentsoriala garatzeko. Pertsona bakoitzaren profil kognitiboa eta sentsoriala sartzeko aukera dugu, eta denboran zeharreko datuen historikoa jasotzen dugu, eta hori lagungarria zaigu horrelakorik gertatzen den kasu horietan garapenaren eta narriadura/inboluzioaren luzetarako ebaluazioa egiteko, eta banakako esku-hartze programak ezartzen ditugu.

Jakin badakigu merkatuan hainbat aukera sentsorial eta kognitibo daudela, baina bereziki DI eta/eta GD duten pertsonen zuzendutako estimulazio sentsokognitiboko espazio bat izatean, erreferenteak gara bai EAEn, baita estatuan ere.

NEUROBIZI programaren oinarria estimulazio basala da, eta kontzeptu egokia da garapen prozesu berriek zentzua duten askotariko pertsonentzat. Beste alde batetik, integrazio sentsorialean oinarrizten da gure gorputzaren eta inguruaren sentsazioak integratzen eta antolatzen dituen prozesu neurologiko gisa eta, horri esker, inguruari egokitutako erantzunak sortzen ditugu. Gainera, gela multisentsorialetan egiten da. Espazio interaktiboak dira, eta ongizate emozionala sustatzeko eta gaitasun fisikoak zein kognitiboak estimulatzeko diseinatuta dago. Eta azkenik, teoria kognitibo eta sentsorialetik sortu da, zeinaren helburua gaitasun kognitibo eta sentsorialak potentziatu eta mantentzea den.

Banakako saioak egiten dira, asteen 45 minutuko saio bat edo bi, erabiltzailearen beharren arabera. Fundazioak bere misioa bizitzako etapa guztietan gauzatzeko proposatzen duen arreta zuzeneko zerbitzua osatzen duten programen barnean dago. Saiok hiru zati dituzte: estimulazio kognitiboa, estimulazio sentsoriala eta erlaxazioa. Segurtasun, ongizate eta lasaitasun espazioa da, eta erabiltzailearen prestasuna errazten du maila emozional eta kognitiboan.

Hauek dira NEUROBIZI programaren helburu orokorrak:

- Inplikazio maila eta inguruarekiko konexioa mantendu edo hobetzea.
- Funtzio kognitiboak eta egoera psikoafektiboa prebenitu, mantendu edo hobetzea.
- Ongizatea eta erlaxatzeko gaitasuna hobetzea.

Hauek dira programak ematen dituen indar eta berritasunak:

- Esku-hartze ereduak osotasunean barne hartzen ditu estimulazio sentsoriala eta kognitiboa, vs estimulazio kognitiboa eta sentsoriala bereizita lantzen dituen tresnak eta metodologia erabiltzen dituen esku-hartze ereduak.
- Diziplina arteko lantalde baten parte-hartzea, erabiltzaileei laguntzen diena askotariko etapa eta programetan: logopedak, psikologoak, fisioterapeutak, psikomotrizistak, etab. Eta DI eta edo GD dutenek eta horien familiek aktiboki parte hartzea.
- Modu pertsonalizatuan beren banakako beharretara egokitzea, eta beren aniztasuna baliozkotzea.
- Bizitzako etapetan erantzutea, haurtzaroan, helduaroan eta zahartzaroan. Beste eredu eta esperientzia batzuk garapenaldi zehatzak dituzte hizpide, baina ez bizi ziklo osoa.



- Gure kolektiboarentzako espazio oso positiboa den arren, bereziki eragin handia izaten ari da garapen murriztagoa eta komunikatzeko oztupoak dituzten erabiltzaileengan. Horri esker, esku-hartze terapeutikoa jolas gisa hartzen da eta motibatzailea da ikastea, eta beste modu batera ez litzateke hori gertatuko.
- Alderdi kognitibo eta sentsorialen luzetarako informazioa jasotzea.
- Ez dago helduaroan eta zahartzaroan narriadura kognitibo posiblea detektatzeko ebaluazio eta jarraipen tresnarik. Horrenbestez, informazio garrantzitsua jaso eta diagnosis egiteko tresna hori ezartzea ezinbestekoa da.

Hauek dira esku-hartzearen onurak:

- Burmuineko hainbat eremuren garapena erraztea.
- Hainbat prozesu kognitiboren garapena ahalbidetzea, besteak beste, pertzepzioa, arreta, memoria eta hizkuntza.
- Mundua ulertzen laguntzea.
- Komunikazioa eta gizarte interakzioa erraztea.
- Jokaera alterazioak gutxitzea.
- Bizi kalitatea hobetzen duen ongizate eta erlaxazio egoera sortzea.

NEUROBIZI programari esker, erabiltzaile eta familiei kalitatezko laguntza ematen zaie beraien beharretatik abiatuta, eta eskubide osoko herritar gisa gizarteratzea eta parte-hartzea errazten da. Faktore bereizlea da sektoreko beste erakunde batzuen aurrean, askotariko garapen eremuak estimulatzeko laguntza programei dagokienez.

Fundazioak "NEUROBIZI: desgaitasun intelektuala dutenentzako estimulazio sentsokognitiboko eredu berriaren" berrikuntza potentzialari esker, EAEko fasean Quality Innovation Award Sarietako finalista izatea lortu du. Eskerrik asko Euskalitekin batera proiektu berritzaileen nazioarteko lehiaketan parte hartzeko aukera emateagatik. Zuekin guztiokin partekatu nahi dugu errekonozimendua.

Helburuak gainditzen: Joseba Castresanari elkarrizketa

Josebak bere esperientzia kontatuko digu, oposizioak gainditu eta enplegu publikoko lanpostua lortu baitu.

Kaixo, Joseba! Kontaiguzu, zein oposizio gainditu duzu?

Hainbat oposizio gainditu ditut: Bizkaiko Foru Aldundiarena, estatukoa, eta Bilboko Udalekoa. Batzuk ordenantza lanposturako izan dira, beste batzuk mendeko lanposturako eta beste batzuk mantentze-lanetarako. Azkenik, Aldundian mantentze-lanen egungo lanpostua lortu nuen, eta horretan nabil.

Zer egiten duzu zure lanpostuan?

Agiriak entregatu, materialak ordezkatu, gauzak konpontzen lagundu, egin beharreko lanak erregistratu, eta egunerokotasuneko beste hainbat gauza.

Nola prestatu zinen oposizioak egiteko?

Nire amak oposizioen berri eman zidan eta Fundazioan prestatu ahal nituela esan zidan, eta deitu eta izena eman nuen. Prestakuntza eskoletan ikasi behar duguna hobeto ulertzen eta oposizioak gainditzen irakasten digute. Laguntzailearekin azterketak eta laburpenak egiten ditugu, eta oposizioen ariketak prestatzen ditugu. Laguntza izatea gustatzen zait, horrela errazagoa baita.



Nola antolatzen zinen ikasteko?

Asko ikasi dut oposizioetarako. Aurreko lanean egun libreak eskatu nituen ikasteko, eta askotan birpasatzen nuen fundazioko langileak bidaltzen ziguna. Nire familiaren babesa oso garrantzitsua izan da, bereziki, amarena. Beti laguntzen dit ikasi ahal izateko.

Zer esan nahi du zuretzat lanpostua lortzeak?

Oso pozik nago egindako lanarekin eta plaza lortu izanarekin. Hainbeste oposizio prestatu eta gero, lortu dut.

Zer esango zenioke oraintxe bertan oposizioak prestatzen ari den norbaiti?

Asko ikasteko, eta nota oso onak ateratzen baditu, hobe. Saiatzen jarraitzeko ere esango nioke.

Joseba, badakigu aurrerapauso handiak eman dituzula zure bizi proiektuan, nahi diguzu kontatu nolakoa den zure bizi independenteko proiektua?

Noski baietz! Lehenik eta behin, Fundazioaren San Adrian etxebizitzan egon nintzen (bizi autonomorako prestatzeko etxebizitza). Hilabete batzuk eman nituen han, etxetik kanpo bizitzen ikasten: etxeko zereginak egiten nituen, kideekin uneak partekatu, dirua kudeatzen ikasi, etab. Eta gero, bakarrik bizitzeko unea iritsi zela erabaki nuen. Orain nire etxe propioan bizi naiz, eta etxeko zereginak bakarrik egiten saiatzen naiz, baina laguntza jasotzen dut. Fundazioko langile batekin hasi nintzen, nire egunerokotasuna antolatzen laguntzen zidan, eta horrela gauzak hobeto nola egin ikasi nuen. Nire familiak ere asko laguntzen dit, batez ere tupperrekin (barrezka). Oso esperientzia ona da, bakarrik bizitzea izugarri atsegin dut.

Karmele Fernández Elejalderi elkarrizketa.

EHDSFko boluntarioa

Nola hasi zinen Euskal Herriko Down Syndrome eta beste adimen urritasunen Fundazioan boluntario lanetan? Zein izan zen zure motibazioa?

Euskal Herriko Down Syndrome eta beste adimen urritasunen Fundazioan kolaboratzen hasi nintzen fundazio horretara joan ondoren, nire denbora hezkuntza-premia bereziak zituzten umeei eskaini nahi nielako asteko arratsalde batzuetan, lanetik irten ondoren. Izaskun izeneko neska batek elkarrizketa bat egin zidan eta une horretan behar zela esan zidan. Ezin izan nuenez haurrekin eta astegunetan, larunbatetan helduekin izena ematea erabaki nuen. Nire motibazioa zen haur horiei laguntzea, animatzea, denbora-tarte entretenigarri bat pasaraztea. Gaur egun ere hala da, eta ahalik eta hobekien egiten saiatzen naiz.

Zenbat denbora daramazu boluntario gisa gurekin?

Egia esan, ez naiz gogoratzen, baina nik uste dut 7 urte inguru, gutxi gorabehera.

Nolakoa da larunbat bat aisialdiko 1. taldean boluntario gisa aritzea?

Larunbat batean, boluntario gisa, jarduerara etorriko diren parte-hartzaileekin geratzea da (spa, bazkaria, Gabonetako gala...). Bi parte-hartzaile mota daude: astero eta hamabostean behin, bakoitzak badaki noiz jaitsi behar duen. Geralekuetan zain egon ondoren, denok batera joaten gara jardueraz gozatzerako, pixka batean barre egitera, eta baita haiei entzuterako eta haien astea nolakoa izan den kontatzera ere.

Kontatuko al diguzu urte hauetan ikasi duzun eta partekatu nahi duzun zerbait?

Urte hauetan ikasi dudak gauzarik esanguratsuena adimen-desgaitasuna eta Down Syndromearen duten beste pertsona zoragarri batzuen ezagutza izan da, eta horiek nire errespetu eta maitasun osoa merezi dute.

Zure ustez, zer gauza hartu beharko lituzke kontuan desgaitasun intelektuala duten pertsonekin boluntariotza egin nahi duen pertsona batek, animatu aurretik?

Gaur egun norbaitek esango balit boluntario egoteko, bihotz ona izan beharko nukeela uste dut, merezi duten maitasun guztia emateko.

Zure esperientziarekin ikasi duzunaren arabera, zure ustez, zer alderdi indartu daitezke desgaitasun intelektuala duten pertsonen bizi-kalitatea eta arreta hobetzeko?

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea eta arreta hobetzeko, funtsezkoa da hainbat alderdi jorratzea:

Lehenik eta behin, gizartean ikusgarritasun handiagoa eman behar zaie, ekitaldi gehiago antolatuz eta hezkuntza-hitzaldiak eginez.

Gainera, funtsezkoa da haien iritzia errespetatzea eta haien beharrak modu aktiboan entzutea, haien bizitzetan eragina duten erabakiak hartzeko orduan adierazteko eta parte hartzeko aukera emanez.

Garrantzitsua da nabarmentzea hobekuntza hori ez dagokiela soilik sektoreko begiraleei edo profesionaleri, baizik eta familiaren, gizartearen (erakundeak eta elkargoak barne) eta eragile garrantzitsu guztien baterako konpromisoa dakarrela. Lankidetzat integral hori funtsezkoa da bere ongizatean eta garapenean eragin nabarmena izango duela bermatzeko.



ERAKARTZE KANPAINA

Euskal Herriko Down Sindrome eta beste adimen urritasunen Fundazioa irabazi-asmorik gabeko interes sozialeko erakundea da, eta bizitzako lehen uneetatik laguntzen die desgaitasunen bat duten txikiei, beren gaitasunak indartzen, tresnak ematen eta berdinekin gizarteratzearen alde lan egiten.

Horregatik, gure inguruko kolaboratzaile guztien laguntza ezinbestekoa da gure lana burutzeko. Laguntza gehiago bilatzeko asmoz, urte amaierako kanpaina bat abiarazi genuen abenduan.

Ruben, Enara, Amaia eta Vera bezalako pertsoneri laguntza eman diezaiekezu oraindik, **03785 bizum** kodearen bidez, beren bizi-proiektuak garatu ahal izan ditzaten.

Guztion artean egiten dugu aldea!



ALBISTEAK

ALBISTEAK

ALBISTEAK

ALBISTEAK

ALBISTEAK

ALBISTEAK

ALBISTEAK

URTAARRILA

REKALDE ARETOA

FMAko taldeetako batzuk, Rekalde aretora joan ziren eta Eme artistarekin tailer bat burutu zuten, haien artelanak burutzeraino. Eskerririk asko momentu eder hau elkartzeagatik!



HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN ARRAKASTARAKO GAKOAK

Extraordinarios 21 elkarteak "Las claves para el éxito de la inclusión educativa" hitzaldia eman zuen, Emilio Ruiz Rodríguez psikologoaren eskutik. Hezkuntza inklusiboaren garrantzia aldarrikatu eta haren garapenarekin bat egiten dugu.

CLAVES PAR EL ÉXITO DE LA INCLUSIÓN EDUCATIVA

Viernes 20 de enero 2023, 15:30h

DIRIGIDO A PROFESIONALES Y FAMILIAS

Acceso gratuito

Solicita el enlace de inscripción.

Se enviará el enlace horas antes de la charla.



EMILIO RUIZ RODRÍGUEZ

Licenciado en Psicología (Psicología educativa y Psicología clínica).
Especialista en Psicología terapéutica.

Diplomado en Magisterio.

Asesor Psico pedagógico de la Fundación Síndrome de Down de Cantabria.
Coordinador del Área de Educación-Psicología del Canal Down21,
de la Fundación Iberoamericana Down21, en Internet (www.down21.org).
Orientador Educativo y Director de la Revista "Síndrome de Down"

FAMILIENTZAKO ESKOLA

FAMILIENTZAKO ESKOLA: Down sindromea duten pertsonen helduaroa eta zahartzea prestakuntzaren lehen saioa izan zen. Fundaziotik arreta berezia eman nahi diogu gaiari, erabiltzaile eta familiengan dituen inplikazio eta garrantziagatik.

Hitzaldi honetan, Madrilgo Printzesaren Ospitaleko Down Sindromea duten Helduen Unitateko burua, Fernando Moldenhauer doktorea, eta erizaina den eta Down sindromea duen heldu baten ama, Nieves Doz, Down sindromea duten helduen adinarekin, osasun-arazoekin eta Alzheimerrarekin lotutako aldaketei buruz aritu ziren.



OTSAILA

RANDSTAD FUNDAZIOA

Hirugarren mailako administrazioko klaseak Randstadekin saio batean parte hartu zuen. Haien azken formakuntza-urtea izanik, enpleguaren garrantziaz aritu ziren bertan.



BILBOKO BALIOEN AGIRIA

Bilboko Udaleko Arabe saloian, irakurketa errazean eta irisgarritasun unibertsaleko beste formatu batzuetan dagoen Bilboko Balioen Agiria banatu zitzairen hirugarren sektoreko hainbat erakunderi, modu sinbolikoan.

Bilboko Balioen Agiria proiektuaren bidez, Bilbon balio partekatuen esparru bat sustatzeko analisi, elkarrizketa, hausnarketa eta elkarlanerako gune bat sortu da erakunde, erakunde sozial, kultural, kirol, enpresa, komunikabide, ikastetxe eta herritarren artean.

Fundazioaren izenean, Oscar Seoane gerentea eta Mikel Jauregi erabiltzailea bertaratu ziren jasotzera.

INAUTERIETAKO TAILER SENTSORIALA

Inauterietan batera, Fundazioko gaztetxoentzako gai dibertigarri honi buruzko talier sentsorialak antolatu genituen, 4-12 urteren artekoentzako. Tailer honek, bizipen-jardueren bidez zentzumenak estimulatzea eta gure



inguruko munduari buruz ikasteko gaitasun kognitiboen garapena sustatzea dauka helburu. Arreta, pentsamendu logikoa eta komunikazioa bezalako gaitasunak martxan jartzen dituzte ekintza bakoitzean.

ASTRABUDUAKO

ASTRABUDUAKOK bigarren denboraldia hasi zuen Areto Futbol Liga egokituan. Halako txapelketek aukera ederra suposatzen dute gaitasun askoren garapenerako.



LEIOAKO EHU

Administrazioko 2. mailako taldea Leioako EHUn hasi zen, Hezkuntza Fakultateko ikasgeletako batean euren prestakuntza jarraitzeko aukera izanez.

Harrera ezin hobea izan zen, eta aukera handi hau ahalik eta gehien aprobetxatzea espero dugu!



ONDARE ARETOA

FMAko bi klase Ondare Aretora joan ziren, eta bertan Ricardo Tojaren obra erakutsi zieten. Eskerrik asko harreragatik.



BISITA SAN ADRIANGO PISURA

Prelaboral taldea Fundazioko Etxeratu programako San Adrian auzoan kokatuta dagoen pisua ikustera joan zen. Han bizi diren pertsonek haien bizitza independentea nolakoa den azaldu zieten. Horrez gain, denbora tarte batean gurasorik gabe bizitza nolakoa den azaldu zuten.

Halako bisiten helburua autonomiaren sustapena eta bizi-proiektuen garapen integrala dira, Fundaziotik garrantzia berezia ematen baitiogu erabiltzaileen independentziari.

Eskerrik asko, zuen harretagatik eta adeitasunagatik.



MARTXOA

EUSKAL UNIBERTSITATEKO ARRETA GOIZTIARREN MASTERRA

Euskal Herriko Unibertsitateko Arreta Goiztiarraren masterrean izan ginen.

Plazer bat izan zen guretzat beste behin Arreta Goiztiarrean interesa duten eta gure helburuekin bat egiten duten profesionalak formatzea. Eskerrik asko!



#NOSOMOSUNESTEROTIPO KANPAINA

Euskal Herriko Down Syndrome eta beste adimen urritasunen Fundaziotik DOWN ESPAÑArekin elkarlanean, martxoaren 21ean ospatu zen Down Syndromearen Munduko Egunerako kanpaina abiarazi genuen #NoSomosUnEstereotipo lelopean.

Down Syndromea duten pertsonak ikusteko modua aldatu nahi dugu, askotan gizartean sartzea zailtzen duten estereotipoz beteta dagoen kolektibo bat izatetik haien lekua eta inklusioa aldarrikatzeko.

Ez dira denak maitagarriak, ezta helmugarik gabeko pertsonak ere, bizitza osoa duten pertsonak dira, ilusioz eta proiektuz beteak. Horregatik, dagoeneko duten autonomiarekin bat datorren irudia aldarrikatzen dugu, gizartearen begirada aldatu eta zor zaien errespetu eta aukerak eskaintzeko.

BELDURRA GALTZEA

Euskal Herriko Down Syndrome eta beste adimen urritasunen Fundazioak, Mikel Bizar abeslariarekin batera, laneratze inklusiboa aldarrikatu zuen proiektu honekin.

'*Se pierda el miedo*' abestiak tabuak apurtzea eskatzen du, gizarte berdinzaleago baterantz egiteko.



AISIA ETA DENBORA LIBREA

Aisia eta denbora libreko programan asteburu oso bat izan genuen.

- Paula eta Xabier gure Hockey kirolariak Bartzelonan entrenatu ziren Espainiako Selekzioarekin.
- BSKko taldeak ligako partida jokatu zuen.
- Aisialdiko taldeek beren planingak egin zituzten.
- USARTAN jardueran parte hartu genuen.
- Hilabete guztietako mendi-irteera egin genuen.
- GATIBUren kontzertuaz gozatu genuen.

Hau guztia asteburuetakoko gure ohiko jardueraz gain, bereziki garrantzitsua baita ezgaitasunak dituzten pertsonentzat aisialdi-esparruak eta ingurumen-sozial berriak eraikitzea, eta hori da Fundazioaren apustua.



BILBOKO UDALAREN EPE -A

Fundazioko 40 neska-mutil aurkeztu ziren Bilboko Udalaren Enplegu Publikoaren Eskaintza azterketara.



Udalaren lehen prozesua da, gaitzerrenda eta azterketa irakurketa errazean izan dituena.



Denak oso pozik atera ziren lehen proba honetatik, zorionak!



EHU-KO OSTALARITZA ESKOLA

FMAko bi taldek, haien formakuntza jarraitu eta aberasteko asmoz, Leioan kokatuta dagoen EHU-ko Ostalaritza Eskolara joateko aukera izan zuten, euren instalazioen ikustaldi gidatua burutzeko.

Joseba Gorostidi LPO-ko (lanerako prestakuntza eta orientabidea) buruzagi eta irakasleari eskerrak eman nahi dizkiogu haren arretagatik eta adeitasunagatik.

Esperientzia oso interesgarria eta abesgarria izan zen guztiontzat eta ostalaritza eskolako ikasleek prestatutako menu batez gozaten amaitu genuen bisita.




APIRILA

SORMENA, MOTIBAZIOA ETA IRUDIMENA

Banakako programetan sormenean, motibazioan eta irudimenean sinesten dugu, ikasteko oinarriak direla uste dugulako.

Oporretan joan aurretik, Ametsek eta Gorkak haien proiektuak erakutsi nahi izan zizkiguten.

Eskerrik asko bikote!



ARTE EDERRETAKO EHU-KO FAKULTATEA

FMAko talde batzuk EHUko Arte Ederren fakultatean egon ziren.

Bi ekintza interesgarri egin genituen: lehenik eta behin "Zianotipia harriaren gainean" deituriko jarduera buru eta ondoren "pika-pika animazio teknika" egiten ikasi genuen.

Lydiari, Victori eta Begori (Asier eta Manel Serraren ama), ezkerrek eman nahi dizkiegu haien denboragatik eta adeitasunagatik.



HITZALDIA SAN JOSE DE CALASANZ-EN

Oierrek, Nagorek eta Izaskunek San Jose de Calasanzeko ikasleekin batera hitzaldi batean parte hartu zuten.

Beraiekin oso ondo pasatu dugu, eta haiek ere ondo pasatzea espero dugu.

Eskerrik asko gonbidatzeagatik!!



ALZOLA BSK BASAURI

Zatoz Fundazioko saskibaloia taldea ezagutzera.

Saskibaloia talde bikain eta lehiakorra antolatu dugu.

Informazio gehiago eskatu aisialdiko taldeari.

Zure zain gaude!



MAIATZA

FUNDANCE



"FUNDANCE" Fundazioko dantza taldeak Euskadiko Dantza Txapelketa Nazionalean parte hartu zuen.

Hemen uzten dizuegu zein ondo egin genuen erakusten duen irudi bat eta, batez ere, nola gozatu genuen.



KOADERNO BIDAIARIA

Banakako Arreta programek koaderno bidaiaria erabiltzen dute komunikatzeko interesa pizteko eta komunikazio asmoa garatzeko. Markel eta Danielek haien esperientzien altxor diren koadernoak erakutsi zizkiguten. Eskerrik asko hirurei partekatzeagatik.



CARITASEKO BOLUNTARIOTZA

FMAko klase bat Caritaseko boluntarioen parte izan zen, ekainaren 8an egin zen Erakundearen topaketa baterako gutunak prestatzen.



IRAKURMEN ERRAZAREN KLUBA

Gure ibilbidea hasi genuen irakurketa errazean, Azkuna Zentroko Mediatekan.

6 ostegunetan zehar, Blanca Matak eskaini zigun laguntzari esker, María Peralta Vidaurretak idatzitako "*Colores prohibidos*" izena hartzen duen liburuarekin arituko ginen. Egileak, gurekin batera, gizarte bidezkoa izatearen ilusioa partekatzen du, zeinetan persona guztiok desberdinak eta aintzat hartuak izateko eskubidea dugun.

HELDUEN BIZITZAREN ETA ZAHARTZEAREN SARE NAZIONALEKO ORDEZKARIEN II. TOPAKETA

Helduen Bizitzaren eta Zahartzearen Sare Nazionaleko Ordezkarien II. Topaketan parte hartu genuen maiatzean. Erakunde bakoitzak etapa honi buruz landutako alderdiak bateratu genituen. Gai garrantzitsuak atera ziren, hala nola autonomiaren lana, komunikazioa, ongizate emozionala edo bititza-proiektuak lantzeko beharra, besteak beste.

Saio osoan zehar, garrantzia berezia eman zitzaion alderdi horiek hainbat eremutatik lantzeari, zehazki entitateetatik eta familietatik. Horrez gain, balio handia eman zitzaion Laguntza Naturaleko zirkuluei. Plazera da halako egitasmoetan parte hartu eta ikasten jarraitzea. Eskerrik asko emandako aukeragatik!



JOKOAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Maiatzaren 28an Jolasaren Nazioarteko Eguna ospatu genuen haurren jolaserako eskubidea ikusarazteko.

Egitarrak, jokoen bitartez umeen gaitasun sozial eta komunikatiboak sustatzea izan zuen helburu, haurren garapen pertsonala potentziatuz. Horretarako, erlazioak, komunikazioa eta errespetua izan ziren oinarriak.



Gainera, taldeetan erabiltzen diren espazioek umeen arteko erlazioak errazten dituzte, beste pertsonetik harreman eta interakzio egokiak sortzeko baliabideak bermatuz. Guzti honek, ikasketen orokortze prozesuan laguntzen du, hauek inguru ezberdinetan eman daitezen, inklusioa eta bizi-kalitatea hobetuz.

Manten zaitezte jostari beti!

EUSKAL HERRIKO LEHEN UNIBERTSITATE-GIZARTE GELA

Euskal Herriko Unibertsitateak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuen Euskal Herriko Down Sindrome eta beste adimen urritasunen Fundazioarekin, eta, horren bidez, Euskadiko lehen "Unibertsitate-gizarte gela" jarri zuten abian. Proiektuak ezgaitasun intelektuala duten gazteak gizarteratzea du helburu, unibertsitate-komunitatearen bitartez.

Ikasgela horren sorrerari esker, adimen-ezgaitasuna duten ikasleak haien eskolara joan daitezke Bilboko Hezkuntza Fakultateak ikastetxeko gizarte-erakundearen esku jarri duen ikasgelaren bitartez. Gazte horiek bizitza akademikoa garatzen dute unibertsitate-bizitza esperimentatzen dutenaldi berean: klasera joaten dira, kafetegian bazkaltzen dute, M8an unibertsitateko ikasleekin agertzen dira, ikasketa-gelak, tailerrak, informatika-gela, kultura-jarduerak eta abar erabiltzen dituzte.

Horrez gain; MakerLab Ikasgelan ere egon ginen, ikasleek STEAM proiektuak garatzeko UPV/EHUK duen gune eksklusiboan. Eskola horretan, Hezkuntza Fakultateko ikasleek Fundazioko ikasleekin lankidetzan jardun zuten robotika, "Chroma key" bideoen sorkuntza eta abarreko proiektuekin.

Hizlariak: Gorka Moreno, UPV/EHUKo Bizkaiko campuseko errektoreordea; María Iturriaga Hidalgo, Euskal Herriko Down Sindrome eta beste adimen urritasunen Fundazioko presidentea; Arantzazu López de la Serna, Bilboko Hezkuntza Fakultateko Praktiketako dekanordea; eta Hezkuntza Fakultateko eta Fundazioko ikasleak.



EKAINA

DEDALO

Ekainaren 1ean, osteguna, "Dedalo" izeneko eskulturaren aurkezpena egin ahal izan genuen. Eskultura hau Gabik egin eta Fundazioari eman dio. Gabi Lorenaren aita da, Fundazioko erabiltzailea. Eskerrak eman nahi dizkiogu Gabiri eskultura Fundazioari emateagatik, baita Ana Mari emazteari, Lorenari eta bere familiari ere, bere laguntzarik gabe Gabik ezin izango liokeelako eskulturari behar zuen denbora guztia eskaini.

"Dedalo" eskultura Bilboko lokalen barruan dago, leku estrategiko batean, nahi duten guztiek uki eta senti dezaten. Gabik egin du Sarearen Eskultura Tailerrean, eta prozesu horren zuzendaria Fito Cuevas izan da.

Aurkezpen horretan, erabiltzaileen, profesionalen, Fundazioaren patronatuaren eta Gabiren lagunen laguntza izateaz gain, Mikel Bizarren laguntza ere izan genuen. Bizarrek "El amanecer del fuego negro" disko-liburuko abesti pare bat eskaini zizkigun, "Se pierda el miedo" eta "Tan solo tuya". Proiektu honen helburuak Down Sindromea eta Autismo Espektoaren Nahasmendua kontzientziatzea, normalizatzea eta ikusaraztea, eta haien laneratzea eta gizarteratzea bultzatzea dira.



AZKUNA ZENTROA

Azkuna Zentroaren (Alhóndiga Bilbao) eraikin adierazgarri eta historikoaren bisita gidatua izan genuen.



Josuri esker, eraikinaren historia, toki desberdinak, seinaleen esanahiak eta zenbait bitxikeri interesgarri jakiteko aukera izan genuen.



Eskerrak eman nahi dizkiogu Azkuna Zentroari eta bertako adituei aukera hau eskaintzeagatik.



KIRIKIÑO IKASTOLAREN DOHAINTZA

Kirikiño Ikastolaren dohaintza jaso genuen, Azoka Solidarioaren ospakizunean bildu zutena.

Eskerrik asko Kirikiño Ikastola jasotako dohaintzagatik eta gaur zuen ikasleekin partekatutako tartetxoagatik, ASPACE eta Hodeilargi elkarteekin batera. Plazer handia izan da.



FAMILIEN TOPAKETA 2023

Ekainaren 18an, igandea, familien urteroko topaketa egin genuen. Aurten formatu berri batekin egitea erabaki genuen, non familiekin, erabiltzaileekin (Entzun Gure Nahia) eta patronatuarekin partekatutako gogoeta-lan bat batzen zen, eta beste zati bat ludikoagoa eta jai girokoa. Hau guztia leku zoragarri batean garatu zen. EKOETXEA-URDAIBAI (MADARIAGA DORREA).

Hausnarketa-lan partekatuaren zatiak hiru eztabaida oso interesgarri izan zituen, erakundearen programen eta zerbitzuen garrantziari buruz, seme-alaben etorkizunerako funtsezko elementuei buruz eta familiek Fundazioan aktiboki parte hartzearen garrantziari buruz. 2,5 ordutan zehar, hausnarketa oso interesgarriak planteatu ziren, eztabaida aberasgarriak, eta patronatu-batzordeak etorkizunean landuko zituenak.

Hausnarketa-lana egiten zen bitartean, erabiltzaileek eta anai-arrebek, hainbat jardueraz gozatu ahal izan zuten, hala nola: Urdaibaiko eskualdean paseatzea, Madariaga Dorretxera bisita egitea eta hainbat jolas, profesional eta boluntarioen gidaritzapean. Bazkari baten ondoren, non familiek elkarrekin partekatu eta gozatu ahal izan zuten, argazki sariak banatu ziren eta zumba jarduera egin zen, non guzti-guztiek, inoiz ez hobeto esanda, dena eman zuten.

Eskerrak eman nahi dizkiegu bertaratu ziren familia guztiei. Eskerrik Asko profesional eta boluntarioei, antolaketa-aren eta lan onaren alde. Uste dugu familia elkartzeko eredu berri honek, erakargarriagoa, parte-hartzaileagoa eta dibertigarriagoa, datorren urtean bertan egongo zareten familiak gehiago izan zaitezten lan egiteko aukera emango digula.



X. AMURRIO TRAIL

Ekainaren 24an X. AMURRIO TRAILn kolaboratzaile gisa egoteko aukera izan genuen. Egundoko eguna izan zen, poz handiz parte hartu genuen eta zinemas tratatu gintuzten.

Mila esker Amurrio trail taldea eta Amurrioko Udalarai egindako esfortzu eta lanagatik!



BIZKAIKO SASKIBALOI FEDERAZIOAREN SARI BANAKETA



Bizkaiko Saskibaloia Federazioaren sari banaketarekin itxi genuen ALZOLA BSK BASAURI EHDSFren lehen denboraldia. Denboraldi hartan asko gozatu genuen partida eta entrenamendu bakoitzean. Talde bikaina egin dugu!

Eskerrik asko parte-hartzaile guztiei, proiektu honen alde egindako apustuagatik eta inplikazioagatik.

EUSKADI IRRATIKO FAKTORIA SAIOA

Joan den ekainaren 8an, EHUKo Hezkuntzako dekanok, Urtza Garayk, Asier Pérez, Maitane Galindo eta Anuska Sánchezekin batera, Euskadi Irratiko Faktoria saioan parte hartu zuten, EHUren eta Fundazioaren arteko lankidetzaproiektua den Aula Sociedad proiektuaz hitz egiteko. Eskerrik asko gonbidapenagatik!



GALDAKAORA BISITA

FMAko taldeetako batek Galdakao bisitatu eta Santa Cruz peña mikologikoa ezagutzeko aukera izan zuen, Irati Urrutikoetxearen gurasoei esker. Hamaiketako ederraz ere gozatu ahal izan zuten.




UZTAILA

LANEKO PRAKTIKAK

LAN programatik, lan-praktikak aurrera ateratzeaz arduratzen dena, ikasle guztiak zoriondu nahi ditugu egin dituzten praktikengatik.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu bai LAN programan konfiantza izan duten enpresei, bai EDE Fundazioko (IFAP Prestakuntza, Enplegu eta Prestakuntza Zentroa) lan-prestatzaileei.



BBK LIVE 2023

Eskerrak eman nahi dizkiegu Last Tour taldeari eta Festents taldeari BBK Live 2023ko partaide izaten uzteagatik. Jaialdiaren ospakizunean, Fundazioko 4 pertsona Glamping inguruan gosariak zerbitzatzen egon ziren.

Boluntariora horren helburua kolektiboari ikusgarritasuna ematea, nola lan egin dezaketen erakustea eta nola egokitu daitezkeen argi uztea da.

Datorren urtean jaialdi honetan berriro parte hartzea espero dugu, baina langile gisa eta ez boluntario gisa bakarrik.

ABUZTUA

GOGORREGI ETA MOSKOTARRAK

Aurten ere Gogorregi (familiak eta erabiltzaileak) eta Moskotarrak (erabiltzaileak bakarrik) konpartsek Bilboko Aste Nagusian parte hartzera gonbidatu gintuzten, txoznan txanda ezberdinak eginez.

Herri bazkaria eta hainbat jarduera ere egin genituen. Datorren urtean errepikatzeko gogoz gelditzen gara.

Guztiok parte hartzera eta egun polita pasatzera animatzen zaituztegu.



IRAILA

AISI LUDIKOA

Iraila iristearekin batera, aisialdi ludikoaren proposamenak iritsi ziren. Talde bat Euskaldunara joan zen Mayumanaren ikuskizuna ikustera. Primeran pasatu zuten!

Adi egon programa honen proposamen berriei, jardueraz betetako beste urte bat dator eta!



MALLONAKO JAIAK

Mallonako jaiak beste urtebetez igaro ziren. Mallonako jai batzordeari esker, txosnan parte hartzeko aukera izan genuen. Esperientzia handia izan zen, eta 2024ko jaietarako atzerako kontaktarekin hasiko gara!

Eskerrik asko Mallonako Jai batzordeari!



ALZHEIMERRAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Irailaren 21ean Alzheimerren munduko eguna ospatu zen, eta dakigunez, Down Sindromea duten pertsonak joera genetiko handiagoa dute gaixotasun hori izateko.

Erakundetik urteak daramatzagu lanean etapa horri ahalik eta hobekien erantzuteko, diagnostikoa, estimulazioa eta ongizate emozionala bezalako alderdiak jorratuz, bai Down sindromea duten pertsona, bai haien familia.

Lortu ditugun lorpenak garrantzitsuak dira, bai eta sentsibilizazioari, inklusioari eta baliabideak eskuratzeari dagokienez oraindik egiteko dagoena ere.

Egun honek balio dezala gaixotasun hau ikusarazteko eta Alzheimerren gaixotasuna duten pertsonak eta haien senideek etapa hau ahalik eta ondoen bizi dezaten lortzeko lanean ari garen erakundeei bultzada eta laguntza handiagoa emateko.

ZERBITZARI-LAGUNTZAILEAREN PROFILA



FMAko talde bat zerbitzari laguntzaile profileko 3. mailako ikaskideak bisitatzera joan zen Ilunion hotelera.

Ilusio handiz kontatu ziguten parte hartu duten catering-etan izandako esperientzia.

Era berean, titulu bat lortzean eta laneratzea erraztuko dieten praktikak egitean sentitzen duten harrotasuna adierazi ziguten.

Denok igaro genuen oso goiz atsegina eta aberasgarria. Eskerrik asko zuen ilusio eta berezkotasunagatik eta zorionak egindako ahaleginagatik.

BOLUNTARIOTZA AZOKA

EHDSftik Bizkaia Gara-k antolatutako Boluntariotza Azokan parte hartzen dugu. Aurreko urtean bi saio eduki zituen azokak, bat Deustuko Unibertsitatean eta beste bat Derioko Irakasle Unibertsitatean (BAM).

EHDSFk unibertsitateko ikasleen artean elkartasun- eta boluntariotza-lanetan inplikazioa sustatzeko laguntzen du. Gizarte hobe eta inklusiboago baten alde lan egiten.

Asier, Maitane, Jon eta azoketan gurekin izan ziren Nora eta David boluntarioei eskerrak eman nahi dizkiegu, ondo azaldu baitzieten Aisialdian eta Denbora Librean zer egiten dugun hurbildu ziren guztiei.



PAUSUZ PAUSU AUTONOMIARANTZ

Miriam Juarez lankideak, FMAko profesionalak, hainbat familiarekin partekatu zuen autonomiak desgaitasuna duten pertsonengan duen garrantzia.

Autonomia erronka izan daiteke desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat, Fundazioak babestu eta ahaldundu egiten baititu.

Familia-eskola proiektuaren barruan garatzen da, eta urtero hainbat ekimen egiten ditugu. Adi!



OSAKIDETZA EPE

Gure erabiltzaile batzuk enplegu publikoko oposizio batzuetara aurkeztu ziren, kasu honetan OSAKIDETZARA. Aurrekoetan bezala, Fundazioaren laguntza jasotzeko aukera izan zuten oposizio horiek prestatzeko.

Fundazioaren programetatik haien ahalegina balioetsi nahi dugu, eta zorte handia opa diegu.

U R R I A

CADENA SER

Cadena Ser Euskadik Irune Rodriguezi, Fundazioko LAN programaren eskutik Tiger Analyticsen lan egiten duenari, eta Lantegi Batuak-en lan egiten duen Suzette Amilibiari egindako elkarrizketan parte hartu genuen. Elkarrizketan, Enplegu Lagunduaren (ECA) garrantzia azpimarratu genuen.



DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ESPAINIAKO GOLF TXAPELKETA

Zorionak eman nahi dizkiegu Fundazioko 5 kirolariei, Ariana, Alejandro, Iñigo, Paula eta Eduardori, irailaren 28an FEDDI adimen urritasuna duten pertsonentzako Espainiako Golf Txapelketaren hamabosgarren edizioan parte hartu baitzuten, 55 jokalarirekin. Lehiaketa Salamancako La Valmuza zelai politean jokatu zen.



Bostek parte-hartze bikaina izan zuten, eta Eduardo Espainiako txapeldun izan zen gizonetzkoen «6 zulo egokituta» kategorian, eta Ariana Espainiako txapeldun geratu zen, hirugarren urtez jarraian, azken 9. zulo zirrargarri batean, emakumezkoen «9 zulo egokitu gabeko lehiaketa» kategorian.

Tokiko eta autonomia-erkidegoko agintariek banatu zituzten sariak, Gaztela eta Leongo Kiroletako zuzendari nagusi Enrique Sánchez-Guijo Acevedo jauna buru zutela.



SASKIBALOI EGOKITUKO II. LIGA

Alzola BSK Basauri EHDSF gure taldeak parte hartzen duen Saskibaloia Egokituko III. Liga aurkeztu zen, desgaitasuna duten pertsonentzat kirol aukera bikaina.

Entrenamenduak eta lehiaketa hasita, zortea eta indarra opa dizkiegu!



AFEKTIBITATE ETA SEXUALITATE TAILERRA

EHDSFko profesional batzuk, familia batzuekin batera, Bertín Osborne Fundazioak, Natalia Rubioren eskutik, desgaitasuna duten pertsonentzako afektibitateari eta sexualitateari buruzko tailerrera joan ziren. Gai interesgarri eta garrantzitsua da, horregatik Fundaziotik formakuntzarako apustua egin genuen.

ILUNION Hotels-ari esker, atsegin handiz partekatzen dugu prestakuntza eta topaketa gune hau zuekin guztiekin.



DOWN ESPAÑAKO FAMILIEN XXIII. TOPAKETA

Down Española familien XXIII. Topaketa egin zen Coruña.

Nagore Nietok, erakundeko Eguneko Arreta Zentroko eta Zahartze arduradun eta Down Española Helduen Bizitzaren eta Zahartzearen Sare Nazionalako koordinatzaileak, "Alzheimerraren gaixotasuna eta narriadura kognitiboa" hitzaldiarekin amaitu zuen. Esku hartzeko protokolo berria aurkeztu eta tresna berria azaltzeko.



EUSKAL FASEKO FINALISTAK BERRIKUNTZA POTENTZIALAREN KATEGORIAN

Quality Innovation Awarden finalista izatea lortu genuen Euskadiren fasean, "*NEUROBIZI: adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako estimulazio sensokognitiboko eredu berria*" berrikuntza-proiektuarekin.

Fundaziotik eskerrak eman nahi dizkizuegu nazioarteko lehiaketa honetan parte hartu izanagatik, eta zuekin partekatu nahi dugu aintzatespen hau. Pausu garrantzitsu bat inklusio eta garapenerantz!



AZAROA

MIKEL GARCIA GARAILE POLONIAKO MUNDUKO KROS TXAPELKETAN

Mikel García, Fundazioaren erabiltzailea, arrakastatsu itzuli zen Ciechanowen (Polonia) egindako Munduko Kros Txapelketatik.

- URREZKO DOMINA KROS LABURRAREN MODALITATEAN
- ZILARREZKO DOMINA KROS LUZEAREN MODALITATEAN

Fundaziotik Mikel eta talde osoa zoriondu nahi ditugu.



BISITA BEREZIA

Bizkaiko Ahalduen Nagusi Elixabete Etxanobe Landajuelaren eta Bizkaiko Gizarte Ekintzako diputatu Amaia Antxustegi Ziardaren bisita jaso genuen.

Bilboko gure instalazioak erakutsi eta gure Arreta Goiztiarreko, Arreta Inklusiboko eta Eguneko Zentroko programak aurkeztu genizkien.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik. Agintaldi arrakastatsua opa dizuegu, Down Sindromea eta Desgaitasun Intelektuala duten pertsonek gure komunitatearen parte izaten jarrai dezaten.



BILBOKO BRIDGESTONE VI. BIZIKLETADA HERRIKOIA

Bridgestone Lehiaketaren seigarren edizioa ospatuko dugu Bilbon. 2600 pertsonak baino gehiagok bat egin zuten egun zirrarragarri horrekin, eta Bilboko kaleetan barrena ibiltzeaz gozatu zuten.

Fundazioko 60 boluntario baino gehiagori esker, denek izan zuten ibilbideaz segurtasunez gozatzeko aukera! Gure esker ona adierazi nahi diegu hori posible egin zuten pertsona guztiei: erabiltzaileei, langileei, boluntarioei eta senideei.

Eskerrak ematen dizkiogu, halaber, Bridgestoneri, emandako aukeragatik, bai eta Eusko Jaurlaritzari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Bilboko Udalari ere, eman dioten babesagatik.

Ezin dugu ahaztu Xabi Aburruzaga, edizio honetako eta etorkizuneko abestia konposatu zuena. Eskerrak eman nahi dizkiegu artearen, komunikazioaren eta kirolaren munduko pertsona guztiei, aurreko hilabeteetan parte hartzea bultzatu zutelako.

Eta eskerrak eman nahi dizkiegu bizikletadako kolaboratzaile guztiei, parte hartzaileek kirol goiz zoragarria izan zezaten lagundu baitzuten.



ARRETA GOIZTIARREKO XIII. KONGRESUA



Arreta Goiztiarrari buruzko Diziplinarreko XIII. Kongresu Nazionalan izan ginen, 'Arreta Goiztiarra Osasun Mentala da' lelopean, Deustuko Unibertsitatean, azaroaren 3an eta 4an.

Gai erabakigarriak joratu ziren, hala nola familiak osasun mentalean duen papera, hizkuntzak eta komunikazioak pantailen aroan duten garrantzia, atxikimendu seguruaren garrantzia eta faktore babesleak haurren garapen goiztiarrean.


Gainera, Sonsoles Perpinyánek, Down Españako Arreta Goiztiarreko Sare Nazionalako koordinatzailearekin, topo egiteko ohorea izan zuten.

“ESA MARAVILLOSA NIEBLA”

Azaroaren 11n, larunbata, Bilboko Campos Eliseos antzokian, FUNUP taldeak bere estreinaldi bikaina egin zuen. Hainbat kidek osatzen dute taldea, eta horien artean Arantza Herrera eta Nekane González daude, Fundazioko erabiltzaileak.

Dantzariak dira, eta Mikel Bizarrekin batera "Esa maravillosa Niebla" izeneko literatura-proiektuan parte hartu zuten.

Esperientzia ikargarria izan zen, eta erabateko arrakasta.



DOWN ESPAÑAREN TOPAKETA NAZIONALA

200 profesional baino gehiago elkartu ginen Madrilen Down sindromearen erronkei aurre egiteko.

- Europako Funtsekin Eraldaketa Digitalerako Plana ezagutu genuen
- Down sindromea duten 30 lagunek gobernantza irigarriari buruzko tailer bat gidatu zuten
- NI GEHIAGO erregistrorako doako app berria, aurkeztu eta etorkizunari buruz eztabaidatu genuen.
- Etorkizuneko erronkak aztertu genituen, aurrera egiteko proposamenak eraikiz!

Euskal Herriko Down Syndrome eta beste adimen urritasunen Fundaziotik Marina Gonzalez, Eva Montes, Nagore Nieto eta Oscar Seoane etorri ziren.



FAIR SATURDAY FESTIVAL

Azaroaren 25ean, Fair Saturday Festival jaialdiaren barruan, Ballet Gala egin zen, Teresa González Ardanaz Ballet Estudioko artisten parte-hartzearekin.

Ekitaldi honetan, bertaratutakoek gure dantzariak aurkeztutako ballet-emanaldi paregabeaz gozatzeko aukera izan zuten.

Garrantzitsua da azpimarratzea ekitaldi horretan bildutako zenbateko osoa EHDSFra bideratu zela.

Eskerrik asko ospakizun artistiko eta solidario honetan parte hartzeagatik.



ABENDUA

BABIO NON - STOP IGOERA



Abenduaren 23an eta 24an Babio Non-Stop igoera ospatu zen, Amurrioko Trail Taldeak antolatuta. Esperientzia ahaztezina izan zen!

Gainera, igoera horren helburua kausa noble bati ekarpena egitea izan zen, bildutako diru guztia EHDSFra bideratu baitzen.

Denen artean gabonak bereziak izan zitezten egin genuen!

BOLUNTARIOTZA SARIA

Urtzi Urrutiak, Fundazioko erabiltzaile-boluntarioa programako partaideak, Getxoko boluntariotzaren saria irabazi zuen, Sarekidek antolatua. ZORIONAK URTZII!

Sari honekin, Sarekidek pertsonek egindako banakako eta taldeko lana aitortu zuen, bai ekintza boluntarioa gauzatzean, bai boluntariotza sustatzean eta boluntariotza funtsezko elementua duten proiektuak garatzean.

Zorionak, Urtzi, zure lan bikainagatik! Eta, batez ere, eskerrak eta zorionak boluntariotzako eta inklusioko ekintza indartsu honetan lan egin duten pertsona guztiei.

GUZTION KONTUA DA

Aniztasuna eta inklusioa ospatu genituen Getxo Gaztek antolatutako Ezgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunean.

Fundazioaren ordezkariak Eder, Maitane eta Laura izan ziren. "GUZTION KONTUA DA", istorio bakoitzak kontaktzen duelako.



2024KO EGUTEGIA

Aurten, Yandiola Jatetxearen laguntza izan dugu gure egutegia posible egiteko. Hemendik, gure esker on zintzoa!

Egutegia eskuragarri dago Bilbo eta Zornotzako gure lokaletan eta Bilbao Centro dendetan, 5 €-ko prezio harrigarrian!

Eskerrak ematen dizkiegu erabiltzaile guztiei, baita artearen, kazetaritzaren, kirolaren eta kargu publikoen munduko pertsona kolaboratzaileei ere! Zuen laguntzarik gabe, egutegi hau ezinezkoa izango litzateke.



Eskerrik asko CID FCA publizitate-agentziari eta Bilbao Centro-ri, gure kolektiboarekin hartutako konpromiso eta lan-arduragatik. Elkarrekin, ate berriak zabaltzen ditugu inklusiorantz.



HEZKUNTZA ESPARRUKO APPEN AZOKAREN VIII. EDIZIOA

Hezkuntzarako APPen VIII. azoka egin zen EHUn, eta bertan parte hartu genuen. App-ak Down Syndrome eta beste Desgaitasun Intelektual batzuk dituzten ikasleentzat izan ziren, haien autonomia sustatzeko.

Hilabete batez, merkataritzako 1. mailako ikasleek aplikazio horiek sortzen lagundu zuten haur hezkuntzako 4. mailako ikasleekin, ingeniariaritzako eskolarekin batera.



BABESLEAK

